



FUNDAZIOA

URTEKO MEMORIA 2021





FUNDAZIOA

2021. urtea COVID-19 gaixotasunaren ondoriozko pandemia ezaugarri nagusi izan duen urtea izan da, gizarteko estamentu guztiak baldintzatu dituena. Urtean zehar, Fundazioak bere gizarte ekintza azpimarratu du, bere kultur proiektuaren bidez, eta kolaboratzaile estrategikoen bere sarea areagotu du.

Ibilbide luzearen ostean, Fundazioak hazten eta hobetzen jarraitzen du. Proiektu eta ekimenak bost multzotan banatzen dira: Gizartea, kultura, prestakuntza eta garapena, kirola eta ingurumena. Athleticen balioak ordezkatu eta defendatzen dituen eguneroko lana.

Herriarengandik sortutako kluba sortzeko, ez dago ezer atseginagorik parte hartzen duen komunitatearen alde lan egitea baino. Herritik sortu, herrira bueltan.



KIROL ETA PRESTAKUNTZA ARLOA

Sorreran, Fundazioaren zeregina ia lan-eremu bakar batera mugatzen zen: oinarrizko kirolera. Horrela, gure inguruko futbolari gazteen prestakuntza integrala, hitzartutako klubekin lankidetzan estuan, Athletic Cluben eta Fundazioaren beraren nortasunaren oinarrizko oinarrietako bat izan da eta da. Arrakasta bermatzeko, funtsezko zutabe horretara bideratzen ditugu baliabide ekonomiko eta giza baliabide garrantzitsuak.



Fundazioko kontratua duten langileen % 80 inguru (ia 50 pertsona) kirol teknikariak, medikuak eta fisioterapeutak dira. Harrobiarekiko konpromisoa Fundazioaren eta Athletic Cluben DNaren parte dela erakusten du.

Proiektuaren helburu nagusiak honakoak dira:

1. Entrenatzaile eta prestatzaileen maila lantzea.
2. Bizkaiko futbolari ahalik eta giza baliabide, material, metodologia eta bestelako baliabide onenak ematea.
3. Jokalarien motrizitate eta kirol maila hobetzea.
4. Irizpideak bateratzea, Bizkaiko ikastetxe eta futbol klubetara zabalduz.

5. Athletic Bizkaiko gizarte osoarengana gerturatzea eta identifikatzea, gaurko eta biharko harreman-oinarriak ezarriz.

Helburu horiek lortzeko, Athletic Club Fundazioa Bizkaiko 140 futbol klub baino gehiagorekin ari da elkarlanean, bai kirolari dagokionez, baita medikuntzari dagokionez ere.

COVID-19ren eraginak arlo horretako lana baldintzatu badu ere, oinarritzko hiru lan-ildoak honako hauek dira:

TEKNIFIKAZIO EREMUAK

Atal honetan, helburu nagusia da Athletic Club Fundazioak parte hartzen duen klubetako entrenatzaileei



prestakuntza ematea. Prestatzaileek metodologia txertatzen dute eta dagokion klubeko teknikariei aholkularitza ematen diete. Teknikazioari dagokionez, sei eremu geografiko bereizten dira:

- Bilbo
- Eskumaldea - Txorierrri - Mungia
- Ezkerraldea - Enkarterriak.
- Durangaldea - Gernikaldea
- Ibaizabal-Aiarako bailara
- Lea Artibai

PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA

Prestakuntza eremua proiektuaren pieza garrantzitsua da. Etengabeko prestakuntza saioak ematen dira Federazioarekin, eta noizean behin beste ikastaro batzuk, aplikazio zuzeneko gaien inguruan.

Urteko ikastaro bat egiten da adierazitako sei eremuetako bakoitzean. Era berean, metodologia ahalik eta gehien egokituko da klubaren beharrezan arabera, kategoriak bereiziz. Teknikarien leku-aldatzeak ahal beste murrizteko, zonalde bakoitzean prestakuntza gela bat dago; horrela, bertaratzeko erraztasunak ematen dira. Aurreikuspena da ikastaroak ugartuz joatea; izan ere, Bizkaiko Futbol Federazioarekiko aliantza baliagarria izango da ikastaroen zabalkunderako eta ikastaroen homologaziorako.



ZENTRO MEDIKOAK

Lezaman, batez ere, eta Markinan kokatuta daude. Jarraipen medikoa eta fisiologikoa eta arreta zerbitzua eskaintzen zaie hitzartutako klubetako jokalariei, baita hitzarmen bidez eratutako taldeei ere. Gainera, prebentzio, ohitura osasungarri eta abarren inguruko parte hartze proiektuak sortzen dira, lana prestakuntza eta prebentzio eremura bideratuz, ez soilik asistentzialera.

BESTE KIROL PROIEKTU BATZUK

Prestakuntzaz harago, Athletic Club Fundazioak hainbat kirol-proiektu garatzen ditu, eta horietan futbola gehiago ulertzen da bere alderdi ludikoan lehiakorrean baino. Futbola joko gisa ulertzen da, eta batasunerako eta garapen pertsonalerako eremu gisa. Hala ere, pandemiaren erruz, Fundazioak 2021an proiektu horietako asko atzeratu behar izan ditu, besteak beste, Hondartzako Futbola eta Aste Santuko Campusa (ez, ordea, Udako eta Gabonetako campusak, arrakastaz ospatu zirenak).



GIZARTE ARLOA

Arlo honetan batzen dira Fundazioak martxan dituen proiektu gehienak, noski. 40 proiektutatik 26. Fundazioaren lehen tasun nagusia pertsona babesgabeenei laguntzea da.

Fundazioaren lehentasun nagusia pertsona babesgabeen laguntzea da. Beharrian handiena dutenengandik gertu egotea, erabiltzaile bakoitzaren egoera hobetzeko lan eginez.

Gizarte-bazterkeria arloan dauden kolektiboak bi mapa hauetan agertzen dira:





2021ean, honako hauek izan dira gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden kolektiboek zuzendutako proiektu berriak: **BERRIZTU, FIDIAS eta IMQ AMSA.**

Fundazioak Hirugarren Sektore Sozialeko hainbat elkartekin lan egiten du, eta horien bidez ematen die arreta pertsona horiei guztiei. Herri ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko elkarteak dira, eta pertsona guztien eskubideen defentsan egiten dute lan. Proiektu sozialen oinarrian dauden aliantza-sarearen barruan, Fundazioarekin lan egiten duten elkarte eta erakunde nagusiak ondoko koadroan jasota daude.

COLABORADORES / LAGUNTZAILEAK





NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Nazioarteko lankidetzak Fundazioaren beste lan-arloetako bat da 2020an, Bizkaia Kooperera Villagol, Bizkaia Kooperera Emakumezkoen Kirola eta Serro Honduras proiektuetan oinarrituta.

2007an Fundazioak lehen nazioarteko lankidetzak ezarri zuen Kirola eta Garapena elkarteari esker, Perun lan egiten duena. Hain zuzen ere, Bizkaia Kooperera Villagol eta Bizkaia Kooperera Emakumezkoen Kirola proiektuek lehen lankidetzak hura hartzen dute abiapuntutzat, eta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Villa El Salvadorreko (Liman) giza kokaguneko adingabeei eta emakumeei zuzentzen zaizkie.

Entrenamendu saioen bidez partekatzen diren helburuak: hezkuntza-prestakuntza, gizarteratzea eta arrisku-jokabideen prebentzioa dira.

OSAKIDETZA BOMS

Ikasturte osoan zehar, Athletic Club Fundazioak ahalegin handiagoa egin du bere gizarte-ekintzan eragiteko, bereziki, bere parte-hartzea gehien eskatzen zuten proiektuetan. Horrela, Osakidetzarekiko lankidetzak etengabea izan da, eta, adibidez, Fundazioak astean 19 entrenamendu programatzen ditu Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearekin (BOMS) lankidetzan.



KULTUR ARLOA

Kultura eta heziketa eskutik doaz,
gizartearen garapenarekin batera.
Errealitatearen inguruko ikuspegi kritikoa
eta analitikoa sustatu behar ditugu,
errealitate hori bera hobetzeko.



THINKING LETRAK ETA FUTBOLA 2021

Zuhaitz Gurrutxagak, FutbolisTOC bakarrizketarekin, amaiera bikaina eman zion Athletic Club Fundazioak Kultura eta Kirol Ministerioaren, BBK Fundazioaren, Bilboko Udalaren eta Melia Hotelaren laguntzarekin antolatutako Thinking, Letrak eta Futbola 2021 jaialdiari. Zinema, literatura, sormena eta umoreari buruz Sala BBK Aretoan (inaugurazioa) eta SAN MAMES BAT aretoan egin ziren sei jardunaldiek zapore bikaina utzi zuten kulturaz eta futbolaz gozatu zuen jende ugariarengan. Gainera, jaialdiaren lehen egunean, Sala BBK Aretoa betetzen zuen jendeak kontzertu historiko eta ahaztezin batera joateko pribilegioa izan zuen.

Jaialdian proiektatu ziren filmen artean, “LFG” (Let’s fucking go akronimoa), Ipar Amerikako futbol selekzioko jokalariek emakumeen eskubideen alde egindako borrokari buruzkoa, izan zen jaialdiarekin hasteko lehena. Gainera, “Cartas a Sócrates” eta Parisko klub historikoari buruzko “Somos el Red Star” dokumentalak eman ziren. Ondorengo zineforumean, filmaren zuzendariek eta Red Starreko presidentek parte hartu zuten.

Juan Villoro izan zen jaialdiaren lehen literatur topaketaren protagonista. Hitzaldi bikaina izan zen, Marcel Beltran eta Galder Reguerarekin batera, eta idazle mexikarrak liluratu egin zuen, literatura- eta futbol-pasadizoak azaltzerakoan erabili zuen talentuari esker.



Jose Angel Iribar, Ainhoa Tirapu, Jon Maia eta Patxi Gaztelumendi futbolari eta euskarari buruz aritu ziren, eta jaialdiak euskal filmotekako harribitxi txiki bat berreskuratu zuen egun horretan, hots, “Futbola eta euskara” dokumentala. Hain zuzen ere, Txopok bere omenaldian bildutako dirua euskararen alde eman zuelako ekoiztu zen pelikula hau.

Fundazioak jaialdiaren jardunaldi berezia eskaini zion sormenari, eta Antonio Pacheco (Pach) eta Santi Garcia publizistek historiako 25 futbol iragarki onenak aukeratu zituzten eta gaiari buruzko maisutasunezko azalpenak eskaini zituzten.

Azken finean, Thinking, Letrak eta Futbola 2021en edizio honek aho zapore handia ematen dio Fundazioari, publikoaren erantzun bikainari esker.

Pandemiaren behin betiko amaiera baieztatzen bada, 2022an Athletic Club Fundazioak bere erreferentziatzko bi kultur jaialdiak banatuta programatuko ditu: Thinking Football Film Festival eta Letrak eta Futbola.

IRAKURKETA KLUBAK

Gainera, Fundazioak irakurzaletasuna sustatzeko kanpainarekin jarraitu du, eta Irakurketa Klubak antolatu ditu “Williams izatea” liburuari buruz. Horietan, Igor Porset egileaz gain, Carlos Gurpeguik edo Gorka Iraizozek parte hartu dute.

VALVERDEREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Aparteko aipamena merezi du “Beste aldea” erakusketak. Ernesto Valverderen argazkien erakusketa horretan bere argazkiak ikusi ahal izan ziren Bilboko Zabalguneko Merkatuko erakusketen areagoan irailaren 15etik urriaren 28ra.



BERTSODERBIAK

Zurigorrien eta txuriurdinen arteko emakumezkoen derbia zela eta ospatzen zen lehen bertsoderbia San Mamesen jokatu zen. Athletic Clubeko eta Realeko fundazioek antolatu ohi duten bertsolaritza eta futbol festa partidaren hasierako txistua baino lehentxeago ospatu zen. Miren Amuriza athleticzaleak eta Amaia Agirre realzaleak zelai erdian abestu zuten San Mamesera joan ziren guztientzat.



INGURUMEN ARLOA

Athletic Club Fundazioak 2019an eta 2020an sortutako lan-ildoari ekin dio 2021ean, ingurumen eta iraunkortasun proiektuetan zentratua. Helburua ingurumenaren defentsan laguntzea eta Athletic Club erakundea % 100 iraunkor bihurtzea da. Lan-ildo hau estrategikoa da etorkizunera begira.



Atal honen barruan burututako proiektuen artean, honakoak aipatu behar ditugu, bereziki:

CO₂ ISURPENAK KONPENSATZEA

Athletic Club Fundazioak konpromisoa hartu zuen talde guztien leku-aldatzeen ondorioz sortzen diren CO₂ isurpenak konpentsatzen saiatzeko. Horrela, Athletic Club Fundazioak bertoko zuhaitzak landatzeko jardunaldi batean parte hartu zuen Lurgaia Fundazioarekin eta Adsis Fundazioarekin batera, Urdaibaiko Biosfera Erreserban 2.100 zuhaitz landatuz.

ISO 9001 eta ISO 14001 ZIURTAGIRIAK

Athletic Club Fundazioak 2021ean ISO 9001 eta ISO 14001 ziurtagiriak berritu zituen.

ISO 9001 eta ISO 14001 ziurtagirien bidez, Fundazioak ziurtatzen du beharrezko elementuak dituela bere lana finkaturiko kalitate eta ingurumen estandarren arabera garatzeko. Zehazki, ziurtagiriek egiaztatzen dute ikuskaturiko

Kudeaketa Sistema gizarte-, ingurumen-, kirol- eta kultura-izaerako proiektuen eta jardueren diseinuari eta kudeaketari aplikatzen zaiola, baita horien hedapenari, promozioari, sustapenari eta horiek gauzatzeko hirugarren erakundeekiko koordinazioari ere.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO ERRONKAK LEHIAKETA

Fundazioak Garapen Iraunkorrerako Helburuen ildotik doan lehiaketa garatu zuen kurtsoaren haiseran. Garapen Iraunkorrerako Erronkak izeneko ekimen horren bidez, parte-hartzaileek gure ingurumena zaindu eta hobetzeko lanean betetzen duten ekarpen garrantzitsua ikusarazten dute. 2021ean honako gai hauek aukeratu ziren erronka gisa: Tokiko merkataritza ardurat-sua, Mugikortasun jasangarria, Turismo jasangarria, Hondakinen berrerabilera, Biodibertsitatearen garrantzia, Erabilitako arropa birziklatzea eta Hondakinak sortu gabe eramateko ontziak.



BESTE LAN-ARLO BATZUK

Hauek dira Fundazioak arlo honetan 2021ean egindako berrikuntzarik esanguratsuenak.



HAURREN BABESA: EHU-REN ETA FUNDAZIOAREN UNIBERTSITATE TITULUA

Bilboko Hezkuntza Fakultateak eta Athletic Club Fundazioak beren esperientzia eta interesak batu zituzten, eta, horren ondorioz, “Kirol, Hezkuntza eta Bizikidetzak: Haurren eta Nerabeen babesa”-ko Aditu Titulu berria sortu zuten. Titulu hau 2020/2021 ikasturtetik dago martxan.

20 krediturekin eta modu erdipresentzian, hezkuntzaren eta kirolaren arloko adituek prestatzen dituzte kiroleko, eskola-kiroleko eta kirol federatuko profesionalak, ikuspegi berritzaile eta inklusibo batetik, eta pertsonen garapen integrala sustatzen duten balioak kontuan hartuta.

Beraz, haurrak eta nerabeak babesteko legeekin bat datorren titulua da, eta hiru helburu nagusi ditu:

1. Haurrak eta nerabeak babesteari buruzko lege-esparrua aztertzea eta kirol-esparruari lotzea.
2. Eskubide eta aukera berdintasuna bermatuko duten prestakuntza-prozesuak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko gai diren entrenatzaileak prestatzea, balioei, ekitateari eta dimentsio emozionalari arreta berezia eskainiz.
3. Kirola gizarte-trebetasunak eta trebetasun kritikoak garatzeko eta herritarrei zerbitzua emateko tresna gisa identifikatzea.



BIZKAIAKO UDALEKIN AKORDIO ESTRATEGIKOAK

Era berean, 2021. urte honetan, Fundaziok eragile estrategikoekin ezarritako kolaborazio kopuruak gora egin duela nabarmendu behar da. Alde batetik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarekin izandako lankidetzak eta, orobat, enpresa eta instituzio berriekin izandakoak.

Zehazki, dagoeneko zortzi dira Fundazioaren proiektuan parte hartzen duten Udalak: Bilbo, Getxo, Derio, Loiu, Gueñes, Alonsotegi, Erandio eta Trapaga. Sinergiak eta elkarlana, NBE erakundeak, garapen iraunkorreko agenda berriko parte modura, txirotasuna desagerrarazi, planeta babestu eta guztiontzako oparotasuna ziurtatzeko ezarritako Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak betetzeko konpromisoarekin.

Bilbon, 2022eko urtarrilaren 3a
Juan Carlos Ercoreca – Fundazioko presidentea

A handwritten signature in white ink, written in a cursive style, slanted upwards from left to right. The signature appears to be 'Juan Carlos Ercoreca'.



FUNDAZIOA

athleticclubfundazioa.eus